



**lekeitioko
udala**

IBON IPARRAGIRREAREN EGOERAREN INGURUKO MOZIOA

Egun badira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Egoera honek, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegonak okertu eta areagotzen du. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatzen ditu.

Gaixo diren preso hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu bereziturik; gaixotasun hauek arretoa zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik.

Eusko Legebiltzarrak berak ere, berauen askatasuna behin baino gehiagotan eskatu du. Etxeratze hori emanten ez den bitartean, Euskal Herriko kartzelaren batean mantendu beharko litzateke.

Ikusirik, Ibon Iparragirre euskal presoak, bestelako auzibideengatik Euskal Herrira ekarri dutela. Aukera paregabea izango litzateke, bertan gelditzea. Horrela bere gaixotasunak behar bezalako arretoa izango duelako.

Hau guztia kontuan harturik, Lekeitioko Udalak:

- 1.- Bere kezka adierazi nahi du Ibon Iparragirre euskal preso gaixoak pairatzen duen egoera larriaren aurrean.
- 2.- Ibon Iparragirre euskal presoak Euskal Herriko kartzelaren batean mantentzea eskatzen du.
- 3.- Ibon Iparragirre presoak Osakidetzan edo bere gertuko eta konfiantzazko mediku batek bere osasun egoera hartatu dezala eskatzen du.
- 4.-Guzti hau exijitzeko, dei egiten du, datorren larunbatean, eguerdiko 12:00etan “*etxean nahi dugu*” lemapean egingo den kontzentrazio ixilera.
- 5.- Mozio hau Udalak dituen bitarteko ezberdinen bitartez jakinaraziko zaie herritarrei.